**AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE LEIOA**

# ANUNCIO

## INICIO DEL EXPEDIENTE QUE PERMITA LA CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS DE *"CONSTRUCCIÓN DE ZONA LUDICO DEPORTIVA DE PINOSOLO-TORRESOLO"*

Mediante decreto nº 123/O.T. de fecha 20-2-2009, se inició el procedimiento de contratación de las obras de "*Construcción de zona lúdico deportiva de Pinosolo-Torresolo",* con las siguientes características básicas:

1. Entidad adjudicadora.
   a) Organismo: Ayuntamiento de Leioa.
   b) Dependencia que tramita el Expediente: Oficina Técnica municipal.
   c) Número de expediente: Decreto nº 123/O.T. de fecha 20-2-2009.

2. Objeto del contrato.
   – Descripción del objeto: Construcción de zona lúdico deportiva de Pinosolo-Torresolo.

3. Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación.
   a) Tramitación: Ordinaria.
   b) Procedimiento: Abierto.

4. Presupuesto base de licitación:
   - 2.751.000,00 euros (I.V.A. incluido), de acuerdo a proyecto técnico redactado al efecto por la empresa Arcain Ingeniería Arquitectura, siendo la misma la encargada de la Dirección de las Obras.

5. Garantía provisional: No se requiere.

6. Clasificación requerida:

*Grupo: C Edificaciones.
- Subgrupo: 3 Estructuras metálicas.
- Categoría : e)

*Grupo: C Edificaciones.
- Subgrupo: 4 Albañilería, revocos y revestimientos.
- Categoría : e)

*Grupo: C Edificaciones.
- Subgrupo: 6 Pavimentos, solados y alicatados.
- Categoría : e)

*Grupo: G Viales y pistas.
- Subgrupo: 6 Obras viales sin cualificación específica.
- Categoría : f)

7. Criterios de adjudicación del concurso:

La puntuación total sobre la cual se ejecutará la puntuación de cada licitador será de hasta 100 puntos.

**A.- MEMORIA TÉCNICA (HASTA 50 PUNTOS).**

Memoria Técnica en la que se refleja el grado de estudio de la obra y del ámbito de actuación, señalando las dificultades más relevantes y medios para su resolución.

En este punto se expondrán las características más relevantes de los trabajos que completan el proyecto, características del ámbito de actuación, posibles afecciones con motivo del desarrollo de los trabajos, etc…

La puntuación de este apartado se repartirá de la siguiente manera:

**1.- Estudio de la Obra, Conocimiento del ámbito de actuación y del proyecto (hasta 10 puntos).**

Se valorará la inclusión de una memoria técnica constructiva en la que el ofertante explique y demuestre el conocimiento del ámbito de actuación y del proyecto. Se valorará el grado de estudio de este último. El ofertante incluirá en este apartado cuanto entienda necesario acerca del desarrollo de las obras, afecciones, etc…

**2.- Experiencia y Equipo humano y material adscrito a la obra (hasta 25 puntos).**

Se valorará su cualificación profesional, su número y disposición en los tiempos, su experiencia en trabajos similares, el empleo de medios personales propios y su disponibilidad de incorporación, el grado de especialización en esta materia, etc…

Con relación a los medios materiales será de considerar de cara a la puntuación la descripción de la maquinaria a emplear en los diferentes tajos con indicación de su pertenencia, la identificación de unidades a subcontratar, etc…

Se presentará un organigrama del personal dispuesto a la obra por parte del ofertante, así como de los medios técnicos de la empresa, en definitiva, un organigrama de los medios humanos y materiales que la empresa dispone al contrato en cuestión.

Se presentará un listado de proveedores y de materiales a emplear por parte del contratista principal.

El licitador, para la fase de obras, presentará un compromiso de suministro de los materiales, productos y elementos prefabricados o manufacturados, trabajos subcontratados y la definición de las especificaciones o características técnicas correspondientes.

**3.- Planning de Trabajos (hasta 15 puntos).**

Se valorará hasta con 15 puntos el planning de trabajos propuesto por parte de los ofertantes que esté debidamente cumplimentado y justificado acorde con el plazo de ejecución ofertado, medios técnicos dispuestos para las obras, equipo humano dispuesto para las obras, control y estimación de las posibles afecciones que pudieran darse en los plazos parciales de cada una de las fases de obra, producciones previstas con relación a la evolución de los trabajos, etc…

Es indispensable la inclusión de un estudio de rendimientos justificativo de los plazos de ejecución de cara a cumplir escrupulosamente con el planning adjunto en el pliego del concurso y el proyecto.

Acorde a completar en Planning de trabajos se deberá de presentar un plan de obra completo.

Sobre la base de las justificaciones contenidas en los apartados anteriores se establece la obligación para el licitador de incluir en este sobre B el Programa de Trabajos que oferta pero sin valoración y que al menos deberá contener:

- Diagrama de Gantt
- Diagrama Pert
- Diagramas espacio — tiempo
- Definición del camino crítico
- Definición de holguras de las actividades no críticas

**Seguridad y salud laboral**

Relación de medios y elementos de Seguridad y Salud laboral, en la fase de ejecución de las obras, que el Contratista habrá de poner a disposición de la obra en concordancia con las previsiones recogidas en el Estudio de Seguridad y Salud laboral del proyecto objeto de este contrato a redactar, según lo estipulado por la normativa vigente sobre la materia (Ley 31/1995 de 8 de Noviembre de Prevención de Riesgos Laborales, Real Decreto 1627/1 997 de 24 de octubre, etc.), indicándose el número y características de dichos medios, y destacando y valorando aquellos aspectos que supongan mejoras al Estudio del proyecto y que estén por encima de las exigencias legales.

**B.- PERSONAL DE OBRA (HASTA 20 PUNTOS).**

Se valorará hasta con 10 puntos la declaración jurada ó responsable por parte del contratista de emplear como mínimo una media de 70 personas en la obra durante el plazo de ejecución de las mismas.

Este hecho se verificará mediante revisiones periódicas, como mínimo mensuales por parte de la propiedad o en quien ésta delegue mediante la solicitud de TC-1 y TC-2 al contratista.

Se valorará además hasta con 10 puntos la declaración jurada ó responsable por parte del contratista de contratar a personal de obra que esté inscrito legalmente en el paro con anterioridad a 1 de Enero de 2.009 asignando con 0,5 puntos por cada persona contratada del paro hasta un máximo de 10 puntos.

**C.- PLAZO DE EJECUCIÓN (HASTA 10 PUNTOS).**

Se valorará con 2 puntos cada semana de reducción de plazo hasta un máximo de 10 puntos.

Será indispensable la inclusión de un compromiso firmado de cumplimiento de plazos acorde a lo señalado en el planning de trabajos así como las exigencias de cumplir con las demoras no esperadas ocasionadas por los promotores sin que esto suponga derecho a revisión de precio alguno.

**D.- PROPOSICIÓN ECONÓMICA (HASTA 5 PUNTOS).**

Se presentarán los cuadros de precios nº 1 y nº 2 en los documentos que componen el presupuesto total de la actuación.

El producto de los importes que componen el cuadro de precios nº 1 del documento por sus mediciones correspondientes suman el Presupuesto de Ejecución Material de oferta de cada licitador al cual se le sumará un 13% en concepto de Gastos Generales, un 6% en concepto de Beneficio Industrial y el correspondiente 16 % en concepto de I.V.A.

Las bajas de las ofertas se limitan al 10% puesto que en la fase de proyecto se ha ajustado su importe que será la base de licitación del presente concurso. Se entiende que los ratios m2 obtenidos son los mínimos exigibles para conservar los criterios de calidad que se quieren disponer en las obras, tratando de que la licitación no resulte una subasta ni que resulte adjudicatario alguien que ejecute bajas desproporcionadas.

El importe señalado como oferta se valorará de la siguiente manera con un importe de hasta 5 puntos:

1. 0,5 punto por cada punto porcentual de baja con un tope de 5 puntos, es decir:

- Oferta igual a la base de licitación: 0 puntos.
- Oferta superior a la base de licitación: 0 puntos.
- Oferta con una baja del 10%: 5 puntos.
- Oferta con una baja del 5%: 2,5 puntos.

La puntuación asignada a la oferta a puntuar en cada caso se ajustará a un resultado con 2 decimales, sin redondeo al alza del segundo decimal.

**E.- INICIO ADELANTADO DE LAS OBRAS (HASTA 5 PUNTOS).**

El artículo 96 de la Ley 30/2007 establece que el inicio de la ejecución del contrato no podrá ser superior a quince (15) días hábiles contados desde la notificación de la adjudicación definitiva. En el mismo sentido el artículo 140 de la Ley 30/2007 dispone que la formalización del contrato deberá realizarse en el plazo de diez (10) días hábiles contados a partir de la citada fecha.

Se valorará con 5 puntos la declaración jurada ó responsable de iniciar la ejecución del contrato con el Acta de Comprobación de Replanteo y formalizar el mismo, implicando la entrega de la garantía definitiva y el resto de la documentación en el plazo máximo de cinco (5) días hábiles contados desde la notificación de la adjudicación definitiva.

**F.- MEJORAS AL CONTRATO OFERTADAS (HASTA 5 PUNTOS).**

Se valorará la presentación por parte del ofertante de mejoras al presente pliego y que supongan una mejora al desarrollo de los trabajos, mejora en el resultado final de la obra, mejora en la documentación de proyecto facilitada por el contratista a la propiedad, servicios adscritos a las obras y no contemplados en los pliegos del concurso, planos us-built compatibles con el GIS instalado en el Ayuntamiento, etc…

**G.- SISTEMAS DE ASEGURAMIENTO DE LA CALIDAD Y MEDIO AMBIENTE (HASTA 5 PUNTOS).**

Se valorará la presentación por parte del ofertante de certificados de disposición de Sistemas de aseguramiento de la Calidad y de Medio Ambiente vigentes e implantados en su empresa, así como de seguridad.

**PLAN DE ASEGURAMIENTO DE LA CALIDAD (PAC) Y PLAN DE GESTIÓN MEDIOAMBIENTAL (PGM)**

El licitador deberá presentar esquema del Plan de Aseguramiento de la Calidad conforme a su Sistema de Calidad, conforme se explicita en el PPTP. En el caso de que el licitador no tenga un sistema de calidad certificado, deberá asimismo redactar el PAC siguiendo los requisitos de la Norma UNE-EN ISO 9001:2000 que resulten de aplicación. Se llama la atención sobre el hecho de que no se solicita la inclusión del sistema de Aseguramiento de Calidad completo de que puedan disponer, sino exclusivamente de un esquema o resumen del mismo

Se presentará igualmente un esquema del Plan de Gestión Medioambiental de la obra, conforme al sistema de Gestión Medioambiental según la Norma UNE-EN ISO 14001, valorando la integración en el sistema de calidad. El licitador propondrá aquellas medidas de integración medioambiental que considere adecuadas para la ejecución de la obra (zonas de acopio de tierra vegetal y acopio de otros materiales, plantas de hormigón y su acondicionamiento posterior, posibles protecciones provisionales contra el ruido de obra no previstas en el proyecto).

8. Obtención de documentación e información:
   a) Empresa Cianoplan sita en Las Arenas-Getxo, calle Villa de Plencia nº 6, Tfno. 94-464.90.87.
   b) Fecha límite de obtención de documentos e información: Hasta el día en que termine el plazo de presentación de ofertas.

9. Presentación de las ofertas:
   a) Fecha límite de presentación: trece (13) días naturales contados a partir del siguiente al de la publicación del presente anuncio en el B.O.B., al tratarse de un procedimiento de urgencia.
   b) Documentación a presentar: De acuerdo a Pliego de Condiciones.
   c) Lugar de presentación: Departamento de Oficialía del Ayuntamiento de Leioa sito en la Casa Consistorial, Barrio Elexalde, nº 1, 48.940-Leioa.

10. Apertura de Ofertas: De acuerdo al pliego de condiciones.

11. Gastos de anuncios: 500,00 euros.

Leioa, a 20 de Febrero de 2009

EL ALCALDE,

Fdo.: Eneko Arruebarrena Elizondo

**LEIOAKO ELIZATEKO UDALA**

# IRAGARKIA

***"PINOSOLO/TORRESOLO-KO KIROL ETA JOLASERAKO EREMUA ERAIKITZEKO"***
**OBRAK KONTRATATU AHAL IZATEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA**

2009-02-20ko 123/O.T. Dekretuaren bidez, *"Pinosolo-Torresolo-ko kirol eta jolaserako eremua eraikitzeko"* obrak kontratatzeko prozedurari hasiera eman zitzaion; honakoak dira oinarrizko baldintzak:

1. Erakunde adjudikatzailea.
   a) Erakundea: Leioako Udala.
   b) Espedientea tramitatu duen bulegoa: Udalaren Bulego Teknikoa.
   c) Espediente-zenbakia: 2009-02-20ko 123/O.T. dekretua

2. Kontratuaren helburua:
   – Helburuaren deskribapena: Pinosolo-Torresolo-ko kirol eta jolaserako eremua eraikitzea.

3. Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta modua.
   a) Tramitazioa: Arrunta.
   b) Prozedura: Irekia.

4. Lizitazio-oinarriaren aurrekontua:
   - 2.751.000,00 euro (BEZ barne), Arcain Ingeniería Arquitectura enpresak horretarako idatzitako proiektu teknikoaren arabera. Enpresa hori da, hain zuzen ere, obren zuzendaritzaren arduraduna.

5. Behin-behineko bermea: Ez da eskatu.

6. Eskatutako sailkapena:

   *Taldea: C Eraikinak.
   - Azpitaldea: 3 Metalezko egiturak.
   - Kategoria: e)

   *Taldea: C Eraikinak.
   - Azpitaldea: 4 Igeltserotza, entokadurak eta estaldurak.
   - Kategoria: e)

   *Taldea: C Eraikinak.
   - Azpitaldea: 6– Zoladurak, zolatak eta alikatatuak.
   - Kategoria: e)

*Taldea: G  Bideak eta pistak.
- Azpitaldea: 6   Kualifikazio berezirik gabeko bide-obrak.
- Kategoria: f)

7. Lehiaketa adjudikatzeko irizpideak:

Lizitatzaile bakoitzaren puntuazioa 100 puntu arteko puntuazio osoaren arabera egingo da.

**A.- MEMORIA TEKNIKOA (GEHIENEZ 50 PUNTU).**

Obra-azterketaren eta jarduketa-eremuaren maila erakusten duen Memoria Teknikoa; bertan, zailtasunik nabarmenenak eta horiek gainditzeko bitartekoak adieraziko dira.

Puntu honetan proiektua osatzen duten lanen ezaugarririk nabarienak azalduko dira, bai eta jarduketa-eremuaren ezaugarriak, lanak egiteak eragin ditzakeen kalteak, eta abar ere.

Atal honi dagokion puntuazioa honela banatuko da:

**1.- Obraren azterlana, jarduketa-eremuaren eta proiektuaren ezagutza (gehienez 10 puntu).**

Eskaintzaileak jarduketa-eremuaren eta proiektuaren ezagutza azaldu eta erakutsiko duen memoria tekniko konstruktiboa baloratuko da. Azken horren azterketa-maila baloratuko da. Eskaintzaileak atal honetan obrak egiteko, kalteentzako, eta abarrentzako beharrezko beste neurri sartuko ditu.

**2.- Esperientzia, giza taldea eta obrari atxikitako materiala (gehienez 25 puntu).**

Kualifikazio pertsonala, epe horretarako langile-kopurua eta antolaketa, antzeko lanetan duten esperientzia, beren bitarteko pertsonalen erabilera eta erabilgarritasun-egoera, materia horretako espezializazio-maila, etab. baloratuko dira.

Bitarteko materialak direla eta, puntuazioa emateko orduan aintzat hartuko dira arloetan erabiliko den materialaren deskribapena (jabetza zehaztu beharko da), azpikontratatuko diren unitateen identifikazioa, etab.

Eskaintzaileak obra egiteko izango dituen langileen organigrama aurkeztuko da, bai eta enpresaren bitarteko teknikoak ere; azken batean, enpresak kontratu honetarako dituen giza baliabideen eta baliabide materialen organigrama.

Kontratista nagusiak izango dituen hornitzaile eta materialen zerrendak aurkeztuko dira.

Lizitatzaileak, obren fasean, materialak, produktuak eta elementu aurrefabrikatu edo manufakturatuak hornitzeko konpromisoa aurkeztuko du, bai eta azpikontratatutako lanak eta dagozkion espezifikazio edo ezaugarri teknikoen definizioa ere.

**3.- Lanen plangintza (gehienez 15 puntu).**

Eskaintzaileak aurkeztutako lanen plangintza, gehienez ere, 15 punturekin baloratuko da, baldin eta behar bezala beteta eta justifikatuta badago; hori guztia, eskaini den burutzapen-epea, obretarako dituen bitarteko teknikoak, obretarako duen giza taldea, obraren fase bakoitzaren epe partzialetan gerta litezkeen kalteen kontrola eta balioespena, lanek aurrera egin ahala aurreikusitako ekoizpena, eta abar kontuan hartuta.

Ezinbestekoa izango da burutzapen-epeak justifikatzeko errendimendu-azterlana aurkeztea, lehiaketaren baldintza-agiriari erantsitako plangintzan eta proiektuan ezarritakoa zorrotz betetzeko.

Lanen plangintza osatzeko, obra-plan osoa aurkeztu beharko da.

Aurreko ataletan azaldutako justifikazioen oinarrian ezarri da lizitatzaileak B gutun-azal honetan eskaintzen duen Lanen Programa sartu beharko duela, baina baloraziorik gabe eta horrek, gutxienez, honakoak izan beharko dituela:

- Gantt diagrama
- Pert diagrama
- Espazio - denbora diagrama
- Bide kritikoaren definizioa
- Kritikoak ez diren jardueren lasaieren definizioa

**<u>Laneko segurtasuna eta osasuna</u>**

Kontratistak obrak egiten diren fasean erabili beharko dituen laneko segurtasun eta osasunerako bitarteko eta elementuen zerrenda; hori guztia, kontratu honen helburu den eta idatzi beharko den proiektuaren Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Azterlanean aurreikusitakoaren arabera, horren gainean indarrean dagoen araudiak ezarritakoari jarraiki (azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua, etab.). Bertan, bitarteko-kopurua eta horien ezaugarriak zehaztu beharko dira, eta proiektuaren azterlanarentzako hobekuntzak ekarriko dituen alderdiak nabarmendu eta baloratuko dira, legezko beharkizunak gainditzen dituztenak.

**B.- OBRA-LANGILEAK (GEHIENEZ 20 PUNTU).**

Kontratistak obrak egiteko epean batez beste 70 langile, gutxienez, erabiltzeko zinpeko edo ardurapeko adierazpena, gehienez ere, 10 punturekin baloratuko da.

Hori egiaztatzeko, jabetzak edo horrek eskuordetutakoak aldian behin azterketak egingo ditu, hilean behin, gutxienez; horretarako, kontratistari TC-1 eta TC-2 agiriak eskatuko zaizkio.

Gainera, kontratistak 2009ko urtarrilaren 1a baino lehen langabezian legez inskribatuta dagoen obra-langilea kontratatzeko zinpeko edo ardurapeko adierazpena egitea, gehienez ere, 10 punturekin baloratuko da, 0,5 puntu langabezian dauden pertsonen kontratu bakoitzeko.

**C.- BURUTZAPEN-EPEA (GEHIENEZ 10 PUNTU).**

2 puntu emango dira epea murrizteko aste bakoitzeko; gehienez, 10 puntu eman ahal izango dira.

Ezinbestekoa izango da epeak betetzeko konpromisoa sinatzea, lanen plangintzan ezarritakoari jarraiki, bai eta sustatzaileek egindako eta aurreikusten ez ziren atzerapenak betetzeko eskakizunak sartzea ere; horrek ez du prezioa berrikusteko eskubiderik ekarriko.

**D.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA (GEHIENEZ 5 PUNTU).**

Jarduketaren aurrekontu osoa osatzen duten agirietan 1 eta 2 zenbakidun prezioen koadroak aurkeztuko dira.

Agiriaren 1 zenbakidun prezioen koadroko zenbatekoen emaitza, dagozkion neurketen arabera, lizitatzaile bakoitzaren eskaintzaren egikaritze materialaren aurrekontuaren batuketa da; horri % 13 gehituko zaio, Industria Irabaziagatik, eta dagokion % 16, BEZagatik.

Eskaintzen beherapenaren muga % 10ekoa izango da; izan ere, proiektuaren fasean zenbatekoa mugatu da eta hori izango da lehiaketa honen lizitazioaren oinarria. Lortutako ratioak (m2) obrak egiteko orduan izan beharreko kalitate-irizpideak zaintzeko gutxieneko betekizunak direla ulertuko da; horrela, bada, lizitazioa enkante ez izateko eta beherapen neurrigabeak egiten dituena adjudikatzaile ez izateko.

Eskaintza gisa adierazitako zenbatekoa, gehienez ere, 5 puntukoa izango da eta honela baloratuko da:

1. 0,5 puntu, beherapeneko portzentaje-puntu bakoitzeko; gehienez ere, 5 puntu, hau da:
   - Lizitazio-oinarriaren pareko eskaintza: 0 puntu.
   - Lizitazio-oinarria baino altuagoko eskaintzak: 0 puntu.
   - % 10eko beherapena duen eskaintza: 5 puntu.
   - % 5eko beherapena duen eskaintza: 2,5 puntu.

Kasu bakoitzean puntuazioa jaso beharreko eskaintzari esleitutako puntuazioa 2 dezimal izango dituen emaitzara egokituko da, bigarren dezimala gorantz biribildu gabe.

**E.- OBREN HASIERA AURRERATZEA (GEHIENEZ 5 PUNTU).**

30/2007 Legearen 96. artikuluak ezarritakoaren arabera, kontratua gauzatzen hasteko hamabost (15) eguneko epea egongo da, gehienez ere, behin betiko jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Era berean, 30/2007 Legearen 40. artikuluak ezarritakoaren arabera, kontratua hamar (10) asteguneko epean formalizatu beharko da, aipatutako egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Kontratua gauzatzen hasteko eta hori formalizatzeko zinpeko edo ardurapeko adierazpena, Zuinketa Egiaztatzeko Aktarekin batera, 5 punturekin baloratuko da; horrela, behin betiko bermea entregatuko da, bai eta gainerako agiriak ere, bost (5) asteguneko epean, gehienez ere, behin betiko adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

**F.- KONTRATUAREN GAINEAN ESKAINITAKO HOBEKUNTZAK (GEHIENEZ 5 PUNTU).**
Eskaintzaileak baldintza-agiri honen inguruan aurkeztutako hobekuntzak baloratuko dira, betiere lanen garapenerako hobekuntzak, obra-amaierako emaitzen hobekuntzak, kontratistak jabetzari emandako proiektuko agirien hobekuntza, lehiaketako baldintza-agirietan aurreikusten ez diren obrei atxikitako zerbitzuak, udalean instalatutako GISekin bateragarriak diren us-built planoak, eta abar ekarriz gero.

**G.- KALITATEA ETA INGURUMENA ZIURTATZEKO SISTEMAK (GEHIENEZ 5 PUNTU).**
Eskaintzaileak indarrean dauden eta enpresan bertan ezarrita dauden Kalitatea eta Ingurumena Ziurtatzeko Sistemak dituelako ziurtagiriak aurkeztea baloratuko da, bai eta segurtasunezkoak ere.

**KALITATEA ZIURTATZEKO PLANA (KZP) ETA INGURUMENA KUDEATZEKO PLANA (IKP)**
Lizitatzaileak Kalitatea Ziurtatzeko Planaren eskema aurkeztu beharko du, duen Kalitate Sistemaren araberakoa, PPTPn azaldu bezala. Hala ere, lizitatzaileak ziurtatutako kalitate-sistema izan ezean, KZP idatzi beharko du, UNE-EN ISO 9001:2000 Arauak ezarritako betekizunetatik aplika daitezkeenei jarraiki. Ohartarazi nahi da egon daitekeen Kalitatea Ziurtatzeko Sistema osoa barik, horren eskema edo laburpena besterik ez dela eskatuko.

Era berean, obraren Ingurumena Kudeatzeko Planaren eskema aurkeztu beharko da, UNE-EN ISO 14001 Arauaren araberako Ingurumena Kudeatzeko Sistemari jarraiki, kalitatearen sisteman integrazioa baloratuz. Lizitatzaileak obra egiteko egoki irizten dituen ingurumenaren integraziorako neurriak proposatuko ditu (landare-lurrak metatzeko eta beste zenbait material metatzeko eremuak, hormigoizko instalazioak eta horien geroko egokitzapena, proiektuan aurreikusi ez diren obraren zarataren kontrako behin-behineko babesak).

8. Agiriak eta informazioa eskuratzeko:
   a) Cianoplan enpresa: Areeta-Getxoko Villa de Plencia kaleko 6. zenbakia. Tf. zk.: 94-464.90.87.
   b) Agiriak eta informazioa eskuratzeko azken eguna: Eskaintzak aurkezteko azken eguna.

9. Eskaintzak aurkeztea:
   a) Aurkezteko azken eguna: egutegiko hamahiru (13) egun, iragarki hau BAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, presako prozedura baita.
   b) Aurkeztu beharreko dokumentuak: Baldintza-agirian azaldutakoaren arabera.
   ©) Aurkezteko lekua: Leioako Udalaren Ofizialtza Saila, Udaletxean (Elexalde 1, 48.940-Leioa).

10. Eskaintzak irekitzea: Baldintza-agirian azaldutakoaren arabera.

11. Iragarkien gastuak: 500,00 euro.

Leioan, 2009ko otsailaren 20an.

ALKATEA,

Sin.: Eneko Arruebarrena Elizondo